

Funtsezko Jarduerak

Gure proiektua bide onetik bideratzeko, orain aipatuko ditugun funtsezko jarduerak era efiziente batean aurrera atera behar ditugu.

Aplikazioa sortu egingo dogu enpresa baten laguntzarekin eta heien teknikariek. Hauek gure aplikazioaren arazoak konpontzen lagunduko digute. Hasieran kostuak murriztu ahal izateko praktikako ikasle batzuk kontratatuko ditugu, Markelen (gure kidea) aginpean egongo dira. Horrela denek irabazten dugu, guri lagunduko gaituzte eta haiek esperientzia irabaziko dute haien etorkizunerako.

Publizitatea, Burutu enpresak gure enpresaren publizitatea egiten lagunduko digu emakume gehiagora heltzeko. Burutu publizitate agentzia bat da.

Emma eta Irune (taldeko partaide batzuk) harremanak kudeatu ditu emakumeak fidel izateko gero eta bezero gehiago izateko. Emakumeak direnez konfiantza gehiago sortu ahal dute bezeroengan eta guregan hurbiltzeko errazagoa izango da haientzat

Kotxeak beharrezkoak direnez (Landerrek alokatuko ditu) leasing enpresa baten bidez izango ditugu. Lau urtez kotxeak alokatuko ditugu eta horren ostean erosiko ditugu askoz merkeago.

Gure enpresaren zereginetan arazo desberdinak sortu daitezke; kotxeekin arazoak, web gunearekin ezustekoak edo erreklamazioak bezeroengatik. Arazo guzti haiek konponbide desberdinak dituzte, kotxeekin izandako arazoak kontratatutako seguruak estali egin ahalgo ditu adibidez.. Gure webguneak sortutako arazoak kontratatutako mantenu zerbitzuarekin kudeatu ahal izango ditugu. Bezeroen erreklamazioak gure bulegoan dauden arazoak konpontzeko arduradunekin konpondu ahal izango dira.

Gure aktibitatea plataformaren inguruan mugitu egingo da, hau da, plataforma da gauzarik garrantzitsuen. Gure sarearen bidez kotxearen zerbitzua eskatzeko behar dugu horregatik da hain garrantzitsua bere zerbitzua.

Orokorrean gure jarduera guztiak gure esku geratuko dira baina bi gauza zehatzetan beste enpresen zerbitzuak kontratatu behar ditugu, web gunea eta aplikazioa sortzeko eta web guneak dituen arazoak konpontzeko.